



RENOGRAMA ISOTOPIKOA

MEDIKUNTZA NUKLEARRA

ZER DA RENOGAMA ISOTOPIKOA?

Giltzurrun-sistemaren funtzionamendua aztertzeko erabiltzen da, eta giltzurrun bakoitzaren informazioa ematen du.

Giltzurrun bakoitzeko kurba bat lortzen da, renograma izenekoa, azterketa egiten den bitartean organo horietan hautemandako jardueraren erregistroa, alegia. Hala, jakin dezakegu organoak nola hartzen duen eta ondoren nola ezabatzen duen injektatutako erradiofarmakoa.

PROBA EGITEKO EGUNA:

Baraurik etortzea komeni da; ez dio axola ura edan duzun edo ez.

ZERTAN DATZA?

Proba egin aurretik, AUO-Santiagoko Medikuntza Nuklearreko Zerbitzuan zaudelarik, aho bidez hidratatuko zaitugu.

Ondoren, zain barneko bide bat jarriko dizugu (besaurrean) seruma mantentzeko eta eman beharreko produktuak emateko.

Haurren kasuan, eta kasu batzuetan baino ez, maskuri-zunda jarri behar da. Kasu horretan, haurraren pediatriak tratamendu profilaktiko antibiotikoa egingo dio.

Alergia badiezu anestesiko lokalei edo sulfamidei, Medikuntza Nuklearreko Zerbitzuko langileei jakinarazi behar diezu.

Ondoren, azterketa egingo dizugu. 45-60 bat minutu iraungo du, eta geldirik egon beharko duzu.

Paziente heldu batek miaketa horretan jasotzen duen erradiazio estimatua toraxeko 80 erradiografia sinple egitearen baliokidea da, edo 8 hilabeteko erradiazio naturalaren gutxi gorabeherako aldi baliokide baten baliokidea.

OHARRAK

Pazientea haurra bada, gurasoei laguntzeko eta bertan egoteko eskatuko zaie, baldin eta egokitzen eta beharrezkotzat jotzen bada.

Proba hau kontraindikaturak dago haurdun dauden emakumeentzat.

Bularra emateko aldian badago, eten egingo du Fisika Medikoko espezialistak ezartzen duen denboran.

